



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2024ko OTSAILA - 250. zenbakia

Laster da kalean "Bapatean 2023" bilduma

Bertsozale Elkartek, urtero bezala, iazko bertso plazen bilduma kaleratuko du. Eskatu duzuen bazkideek etxean jasoko duzue laster.

Aurten ere heldu da iazko bertso plazek emandakoaren bilduma. *Bapatean 2023* paperean izango da laster. Jaso ditugu bazkideon eskaerak, eta ahal bezain laster helaraziko dizkizuegu zuen aleak. Bestalde, audio fitxategiak eskuratu nahi izanez gero, idatzi xenpelar@bertsozale.eus helbidera eskaera eginez.

Proiektua gauzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Oreak eta Eusko Jaurlaritzaren ondare immaterialaren azterketarako dirulaguntza jaso ditu

Bertso plazaz harago

Aurtengo edizioari Amaia Castorene Lurok egin dio aitzinsolasa, *Bertsoaren potretak* izenburupean. Horren atzetik, *Bapatean 2023*k 66 bertso saiotako 83 bertsoaldi dakartza, bertsoaldi bakoitzari dagokion gai, doinu izen eta ohiko informazio guziarekin batera. Dena den, iazko plazan 350 saio grabatu ziren: orotara, eta 76 bertsoari 653 bertso transkribatu dira.

Bapatean 2023 liburuaren corpus nagusiak herritarrek antolatutako bertso saioetan bat-batean kantatutako bertsoak

jasotzen ditu, bertsolariak eta horien saio kopuruak kontuan harturik. Hots, bat-batean kantatutako bertsoak hartu dira kontuan liburu hau egiterakoan, txapelketetakoak izan ezik. Bertso paperen alorrekorik ere ez da jaso, baina bai bat-bateko gazte sariketetakoak.

Bertsoaldiak ez ezik, bertso saioen mugimenduaren informazioa dakar liburuak: ze saio mota eta zenbat antolatu diren Euskal Herriko hamaika eskualdeetan. Aldizkako saioen informazioa ere badakar *Bapatean 2023*ak. Halaber, bertan ageri diren bertsoen egileen izenak, sorterrria eta bakoitzak ze ariketa mota egin duen ere adierazi da.

Anitz jenderen lanaren emaitza da liburu hau. Borondatezko grabatzaileen zerrenda luzea da eta guztioi esker jaso ahal izan dira grabazioak eta potretak. Beraz, eskerrik beroenak bihotz-bihotzez saio erdi, oso bat edo hamaika grabatu, edo argazkiren bat egin eta XDZra helarazi dizkiguzuen hainbeste bertsozaleri.



2022ko Bapatean bildumaren artxiboko argazkia. //XDZ



**MAIALEN
LUJANBIO ZUGASTI**
Gernika-Lumo, 2024-01-27
Bertso Eguna 2024

Doinua: Ikusten duzu goizean

Herrenak eta debilak
erdipurdikoak pilak
eta gutxi marabillak...
Halaxe dira bertso sortzean
bide zail ta kiribilak
animo neska-mutilak
bertso eskolako kuadrillak
gora eskoba makilak!

Bertsozale Elkarteko Batzar Nagusiak

Urte sasoi honetan izaten dira elkarteetako Batzar Nagusiak, eta horrela da Bertsozale Elkartearen ere. Arabakoek egin dute jada: urtarrilaren 14ean egin zuten, Baranbion.

Datak hurbiltzen joan ahala, informazio zehatzagoa helaraziko dizuegu bazkideei.



Bertsularien Lagunak Elkarte - Martxoak 2 (larunbata). Larraldea (Senpere), 10:00

Bizkaiko Bertsozale Elkarte - Martxoak 7 (osteguna). La Bolsa eraikina (Bilbo), 18:00

Euskal Herriko Bertsozale Elkarte - Martxoak 10 (igandea). Aguraingo pleno aretoa (Agurain), 11:00.

Gipuzkoako Bertsozale Elkarte - Otsailak 29 (osteguna). Legorretako Herri Antzokia (Legorreta), 18:30.

Nafarroako Bertsozale Elkarte - Otsailak 24 (larunbata). Arizkunenea Kultur Etxea (Elizondo), 10:30

Bertsoaroa izango da otsaila osoan zehar Nafarroan

Otsailaren 8an hasi eta martxoaren 1era arteko egitaraua dakar aurtengo edizioak. 33. Edizioa izango da aurtengoa, Nafarroako Bertsozale Elkarteak eta Iruñeko Udalak antolatuta.

BERTSOAROIA 2024

BERTSO JAIALDIA
OTSAILAK 8, osteguna, 19:00etan,
Nafarroako Antzerki Eskolan.
(18:30ean, Iruñeko IV. Bertsozale
Lehiaketako sari banaketa ekitaldia.)
Sarrerak 5€tan salgai NAEn
webgunean (14 urte artekoak doan).*

Bertsolariak: Amets Arzallus, Ekhiñe Zapilain, Eneko Lazkoz, Josu Sanjurjo, Nerea Ibarzabal eta Saloa Alkaiza.
Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo.

'AMARAUN'. Bertsoa, musika eta dantza, amatasunaren inguruan.
OTSAILAK 14, asteazkena, 19:00etan,
Nafarroako Antzerki Eskolan. Sarrerak 5€tan salgai NAEn webgunean (14 urte artekoak doan).*

Bertsolaria: Oihana Iguaran.
Dantzaria: Amañur Luluaga.

'BERTSO JASA, BAT-BATEKO JOLASA'. Haurrentzako bertso tailerra.
OTSAILAK 17, larunbata, 11:00etan
Sanduzelako Civillorren, 8-12 urte artekoentzat.
Izen-ematea beharrezkoa, otsailaren 15era arte:
nafarroa.sustapena@bertsozale.eus
helbidetan edota 948143747 telefonon.

Bertsolariak: Ekain Alegre eta Idoia Granizo.

*NAEko lau emanaldietarako bonua, 15 eurotan.

BERTSO JAIALDIA
OTSAILAK 22, osteguna,
19:00etan, Nafarroako Antzerki
Eskolan. Sarrerak 5€tan salgai
NAEn webgunean (14 urte artekoak doan).*

Bertsolariak: Andoni Egoña,
Ane Zuazubiskar, Joanes Illarregi, Jone Uria, Saats Karasatorre eta Xabat Illarregi.
Gai-jartzailea: Ainhoa Larretxea.

GAZTEEN BERTSO SAIOA
OTSAILAK 23, ostirala, 19:00etan,
LABAN.

Bertsolariak: Eki Mateorena,
Kattin Madariaga, Janire Arrizabalaga, Jon Mendiluze,
June Alestaran eta Sabin Abarrategi.
Gai-jartzailea: Ainhoa Larretxea.

BERTSO SAIO ESPEKULATIBOA. Etorkizuna bertsoan pentsatzen.
OTSAILAK 28, asteazkena,
19:00etan, Nafarroako Antzerki
Eskolan. Sarrerak 5€tan salgai
NAEn webgunean (14 urte artekoak doan).*

Bertsolariak: Miren Amuriza,
Sustoi Collina eta Unai Iturriaga.
Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.

BERTSO AFARIA
MARTXOAK 1, ostirala, 21:00etan,
Geltokian. Sarrerak 28€tan
salgai www.geltoki.red
atarian.

Bertsolariak: Julio Soto,
Maitalen Lujanbio, Sarai Robles.
Gai-jartzailea: Ander Aranburu.

entnae Laba geltoki Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua Iruñeko Udala LG NA 34-2024

Urtero bezala, heldu da aurten ere Bertsoaroa Nafarroara. Nafarroako Bertsozale Elkartearen eta Iruñeko Udalaren eskutik, unean uneko bertsolaritzari oihartzuna emateko asmoa du egitasmoak, kalitatez eta aniztasunez. Horretarako, Nafarroako bertsolariei eta bertsolari gazteei protagonismoa eman nahi diete antolatzaileek. Horren erakusle da antolatu duten egitaraua.

Guztira zazpi emanaldi egongo dira, bertsoaren forma anitzetan. Bertso plaza ohikotik kanporako hiru saio berezi izango dira: *AMARAUN* izeneko saio berezia; *Bertso saio espekulatiboa*. *Etorkizuna bertsoan pentsatzen* bertso saio futurista; *Bertso jasa bat-bateko jolasa* haurrentzako tailerra. Horrez gain, bertso afaria eta bi bertso jaialdi egongo dira; baita gaztetxoentzako bertso saio bat ere. Egitarau osoa ikusteko, bisitatu bertsozale.eus webgunea.

Antzerki Eskolan egingo diren lau emanaldiek bosna euroko sarrera izango dute -14 urte artekoen kasuan, doan-, eta lauentzako bonoa eskuratu ahal izango da 15 eurotan (sarrerak salgai antzokiaren webgunean). *Bertso jasa* tailerrarako izena eman beharko da aurrez, eta bertso afariaren kasuan, Geltokiren webgunean erosi beharko dira sarrerak, 28 euroan. Gazte bertso saioak sarrera librea izango du, aforoa bete arte.

Aurtengo Bertsolamintza, gaiz lepo

Martxoaren 13tik 23ra arteko egitaraua dakar aurtengo edizioak. Nondik eta zeri kantatzen diogu? izenburupean, bertsoarako gaiak, bertsolarien kokapena eta beste landuko dituzte hizlariek.

Aurreko BertsoZalean aurreratu genizuen moduan, aurtengo martxoan izango da Bertsolamintzaren zazpigarren edizioa. Bi astean zehar bina saio eskainiko dituzte hizlariek, herrialde anitzetan. Saio guztiak 18:00etan izango dira, Bilbokoa izan ezik: 17:30ean izango da. Martxoaren 23an Villabonan elkartuko ditugu hizlari guztiak, egun osoko egitarau batean bilduta.

Martxoaren 13an hasiko gara, Gasteizko Goiuri jauregian. Martin de Salinas aretoan bilduko dira, Aroa Arrizubieta moderatzaile dutela, Maider Arregi alde batetik eta Aitor Bizkarra eta Oihana Iguaran bestetik. Hiruek aztertuko dute zein gairi abesten dieten bertsolariak, baina ertz ezberdinetik. Arregik oholztan ez dauden kolektiboez eta beraiei buruz kantatzearen inguruan hausnartuko du. Iguaranek eta Bizkarrak egoera sozio-ekonomikoa izango dute berbagai, eta hausnartuko dute plazetan horiei abesten zaien.

Bigarren saioa martxoaren 14an izango da, Bilboko Euskararen Etxean. Bertako Berba aretoan, Zihara Enbeitaren gidaritzapean, Jexux Mari Irazuk eta Onintza Enbeitak hartuko dute hitza. Lehenak libreko bertsozaintza izango du hizketagai: bere kokapena, presentzia, aukerak eta mugak azalduko ditu. Enbeitak, osterak, botere harremanez arituko da. Bertsolariaren itzalak eta generoak harreman horien sorkuntzan duten garrantzia izan hausnartuko du.

Itsasuko Sanoki gela izango da hirugarren geralekua, martxoaren 20an. Bertan, Battit Crouspeyre izango da aurkezle, eta berarekin Oihana Arana eta Maialen Akizu eta Ainhoa Urien egongo dira. Arana bertsolarietako diskurtsoez arituko da: bertsolariak diskurtsoz ba ote duten, ideologikoki lerratuta ote dauden eta beste. Akizuk eta Urienek, bestetik, bertsolarien diskurtsoez egingo dute eztabaida: estetika eta etikaren artean, artista eta obra uztartzearen inguruan arituko dira.

Azken saioa Iruñean izango da, LABA espazioan, martxoaren 21ean. Saioa Alkaiza ibiliko da aurkezle lanetan. Hizlariak Julio Soto eta Imanol Artola batetik, eta bestetik Odei Barroso, Unai Iturriaga, Sarai Robles, Aitor Salegi eta Oihane Perea izango dira. Lehenengoak gai-jartzailearen inguruan arituko dira, gaien aukeraketaren inguruan. Azkenengoen bertso-eskoletara ekarriko dute gaia: eztabaidatuko dute bertan ikasitakoa soilik forma den, ala edukiak ere baduen tokirik.

Aurtengo bertsolamintzaren itxiera ekitaldia, esan bezala, Villabonan izango da, Subijana etxean, martxoaren 23an. Egun osoko egitaraua egongo da, aurreko bi asteetan egondako hizlariak bertan egongo baitira, Ainhoa Agirrezaldegi eta Aner Peritz moderatzaile dituztela. Egitaraua goizeko 8:45ean hasiko da, eta eguerdirako bukatuko da. Ostean, bazkaria egongo da Villabonako Behar Zana elkartearen, eta bazkalondan libreko bertso saioa. Bazkarirako tiketak salgai egongo dira bertsozaleak.eus webgunean, 25 eurotan.



2011ko Bertsolamintzaren artxiboko argazkia. //XDZ



Puntu jarrita

JOKIN ARRIOLA URIARTE

Topikoegia litzateke bertso mundutik jaso dudan onena jasotzeko dudala esatea, baina, hein batean fede horretatik bizi gara bertso munduko biztanleok. Kostatzen zait bertso mundua homogeneoa edo solidoa ez denik ulertzea. Eta uste dut bertso munduan dabiltzanei orokorrean ere kostatzen zaiela. Mundu hori eta bere orbita ez dutela txapelketetan edo plazetan oholza gainean zein entzule gisa daudenek soilik osatzen, alegia. Bai agian bertsoaren atal ofiziala, baina bertsolaritza elkarteetatik eta programetatik harago doa, eta horrela behar du.

Hori ulertzearen prozesua zaila baina egin beharrekoa da. Bada, hori izan liteke niri bertso munduak eman didan onenatarikoa, bertsoa ulertzeko era propioa eman baitit. Hau da, lagunarteko komunikaziorako, umorerako, eskakizunetarako, kritikarako... hizketa ez ezik bertsoa ere erabil daitekeela ulertzea. Garazik zioen basatza, edozein espazio informalean suerta daiteke, eta hori ere bertsolaritzaren zati bat da, bertso mundua. Izan modu antolatuan edo espontaneoan; izan plazan, tabernan, etxean, gaztetxean, harategian zein lantokiko aldagelan.

Hori da nire partetik eragin nahi nukeen eraldaketa. Bertsolaritza helburu bat ez dela barnatzea eta ikusaraztea; bertsoa helburu batzuetarako bitarteko dela ulertzea, eta horrekiko modu koherentean eraikitzea bertso munduak. Lagunartean abesteko asmoz, euskarari buruzko bertso sorta bat idatzi nuen behin. Azken puntuek honela zioten: "bizi-iraute nahiak ez gaitzan itsutu maiteminean, borrokarako tresna bat baita euskara azken finean." Euskara hitza bertsoa hitzarengatik ordezkatuz gero ere, baliagarria delakoan nago. Beraz, balio dezala basatzak esandakoak aplikatzeko. Uxue Alberdik zioen bezala: "lokatzetatik egingo dinagu borroka". Eta zuk, Xabito, nondik bizi duzu bertsoa? Zer dago bertsoetik zure letretan?

Koplak

Bertso Udalekuetako gaztetxoek izen-ematea, martxoaren 4an

Bertso Udalekuak prestatzen ari gara dagoeneko Bertsozale Elkartearen. Laster zabalduko dugu gaztetxoek izen-emateko epea: martxoaren 4tik 18ra izango dute aukera gurasoren bat bazkide duten gaztetxoek, edota bertso-eskoletako kideek. Behin izen-emate hori itxita, martxoaren 20an irekiko dugu izen-emate orokorra, apirilaren 15era arte. Animatu eta eman izena! Euroeskualeak, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak babesten dute Bertso Udalekuen egitasmoa, eta Irizarrek laguntzen du.

Poto-Finixa




Bertso-eskolan nola, plazan hala.

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Nafarroako Bertsozale Elkartearen 40. Urteurren ospakizuna, otsailaren 24an

Nafarroako Bertsozale Elkarteak 40 urte beteko ditu aurten, eta urteurrenaren baitan ospakizuna egingo dute otsailaren 24an, Lekarozen. Larraldea Sagardotegian izango da ospakizuna. 13:45ean izango den ekitaldiarekin emango zaio hasiera ospakizunari, ondoren, 14:00etan, kupel arteko bertso saioa izango da Bittor Elizagoien, Ekhiñe Zapiain eta Julio Soto bertsolariekin, eta 14:30ean bazkaria. Musikaz lagundutako bazkalondoa izango da gero, 'Hor gul!' taldearen eskutik.



Ilustrazioa: Higinia Garay

Gure kultura sustatzen dugu, gure *gizartearen* sustraitzea eta kohesioa *bultzatzeko*.

LABORAL
kutxa